

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

GASTEIZKO ESKUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

Luzatzea Gasteizko eskualdeko Hauteskunde Batzordea Eusko Legebiltzarreko 2016ko hauteskundeetarako

Bat etorri Hauteskunde Araubide Orokorren Legeak, 18.6 artikuluari dagokionez, 15.3 artikuluan xedatutakoarekin, eta ALHAOn argitaratu dadin, jakinarazten dut luzatuta geratzen dela Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen agintaldia, hain zuzen, 2016ko ekainaren 26an Diputatuen Kongresurako eta Senaturako izan ziren hauteskundeetarako eratu zena, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak deitu baitira 2016ko irailaren 25erako (2016ko abuztuaren 1eko 23/2016 Dekretua). Batzorde hori kide hauek eratzen dute:

– Francisco Javier Pablo Pablo, Gasteizko 1. auzialdiko 2 zenbakiko epaitegiko magistratu eta epailea. Eskualdeko batzordeburua.

– Beatriz Eva Román Gobernado, Gasteizko instrukzioko 3 zenbakiko epaitegiko magistratu eta epailea.

– María Teresa Trinidad Santos, Gasteizko lehen auzialdiko 7 zenbakiko epaitegiko magistratu eta epailea.

María Visitación Fernández Gómez de Cadinaños, Gasteizko instrukzioko 1 zenbakiko ZLU-Peko Justizia Administrazioko letratua, Gasteizko epaitegi dekanoko letradu lanetan, da Hauteskunde Batzordeko idazkaria.

– Batzordekide ez judizialak:

Galder del Campo Molinuevo

Santiago Ramírez Cameno

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 2a

GASTEIZKO ESKUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEBURUA